

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Higiezinetao agenteen erregistro berriari esker, merkatu fidagarriagoa izango du kontsumitzaileak, eta profesional onak babesteko aukera emango du

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran onartutako foru-dekretuaren bitartez, Erregistroa sortu eta horren funtzionamendua erregulatuko da

Asteazkena, 2019.eko martxoak 27

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran erregistro bat sortzea onartu du merkatuak funtzionamendu hobea izateko helburu nagusiarekin; modu horretan, merkatua fidagarria eta gardena izango da, kontsumitzailea babesteko du, eta profesional onak bereizi edo aitortuko ditu.

Gogoratu behar da 2000. urteaz geroztik (4/2000 Errege Lege Dekretua eta ondorengo 10/2003 Legea, higiezin sektorea liberalizatzea), ez dela beharrezkoa goi-titulaziorik (edo bestelakorik) izatea, ez helbide fisiko zehatza izatea, ezta erantzukizun zibilaren aseguruia izatea ere; alegia, higiezin merkatuan lan egiteko ez da inolako baldintzarik eskatzen.

Gobernuak nabarmendutakoaren arabera, merkatua liberalizatzea da eskaintzen eta eskarien lehia librearen aurrean eragozpenak enkaitzea, erosteko prezio hobek jartzeko eta kudeaketa-kostuak murrizteko. Beraz, helburu hori ez da merkatua edozein operadore irekiaz lortzen, baizik eta herritarrei hautatzeko askatasun handiagoa emanaz, segurtasun juridikoaren eta ekonomikoaren maila berarekin. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak bermea izatearen aldeko apustua egin du. Nafarroako Higiezin Agenteen Erregistroa sortzarekin, herritarren artean konfiantza handiagoa sortu nahi da, gardentasuna bultzatuaz eta kontsumitzaileei babes handiagoa emanaz etxebizitza erosterakoan, kasu askotan haien bizitzako inbertsiorik handiena izaten da-eta.

Edukia

Aurkeztutako testuan, 17 artikuluren bidez arautzen dira Erregistroaren xedea, helburuak eta funtzionamendua. Erregistroa borondatezkoa da, publikoa eta doakoa, izaera administratibokoa, eta Nafarroako etxebizitzaren informaziorako web gunean eskura egongo da: www.vivienda.navarra.es.

Halaber, higiezinetao agenteen prozedura eta baldintzak arautzen ditu izen-ematea eskatu ahal izateko. Hauek dira gutxieneko baldintzak edo eskakizunak: kokapena (Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean helbide fisikoa eduki beharko dute), trebakuntza profesionala (gutxieneko esperientzia, titulazioa, prestakuntza), kaudimena (bermea eta erantzukizun zibilaren aseguruaren poliza) eta profesionalki ongi egiten

jakitea.

Baldintza horiek betetzen dituzten profesionalek Nafarroako Higiezinetakako Agenteen Erregistroan izena emanda daudela adierazten duten logoa eta plaka erabili ahal izango dituzte.

Onartutako dekretua egiten Nafarroako Higiezinaren Jabetzako Agenteen Elkargo Ofizialak nahiz Nafarroako higiezinaren elkarte nagusiek esku hartu eta lagundu dute. Nafarroako Higiezinetakako Agenteen Erregistroa sortzearekin horren eskari profesional nagusia asebetetzea lortu da.